

ERAKUNDEA

Mankomunitatea osatzen duten udalerriek agintzen dizkioten zerbitzuak ahalik eta modu eraginkorrean ematera bideratuta dago Mankomunitatearen jarduna. Ikuspegi ekonomikoa ez dago bideratuta etekinak lortzera, baizik eta baliabideak egoki kudeatzera, zerbitzuan kalitate gorena lortzeko helburua bermatu ahal izateko. Baliabideak arrazoizko moduan erabilia eta kostuak kontrolatuta, bezeroentzat egokiak diren tarifak ezarri ahal dira, kudeaketa-ereduaren etorkizuneko bideragarritasuna ziurtatu ahal izateko.

Ekitaldi bakoitzean lortzen diren emaitza ekonomikoak berriro inbertitzen dira azpiegiturak eta baliabideak hobetzeko. Erkidetutako udalek eta kontzejuek egiten dituzten ekarpenek osatzen dute gizarte-funtsa. Eskudiru, ibilgetu, eta beste kontu-sail zordun eta hartzekodun batzuen bidez egiten dute. **2023ko abenduaren 31ko funts berekiei buruzko kopurua, urteko emaitzak kenduta, 101.309.546,60 euro dira.**